



el desván de... taldea Alain Elordui

eta **Juanma García** musikariek sortu zuten **Mungian** 2006ko udan. Bi lagunak **5**

Kontra taldean egondakoak ziren eta musikan beste zerbait egiteko harrak barru guztiak jaten zizkien egunak joan eta egunak etorri. Oso garbi zuten. Alain eta Juanma buru belarri sartu ziren euren proiektu berrian. Izena laster batean etorri zen: El Desván de...

El Desván de... taldeak 2007ko apirilean eta maiatzean egin zituen bere estraineko diskoaren grabaketa-saioak Mungiako **Lamina estudioan**, **Natxo Liberty**ren gidaritzapean (grabaketa, nahasketak, ekoizpena eta konponketak berak egin ditu). Masterizazioa **Dave Horrocks** soinu teknikariak egin du Kanadako **Infinite Wave estudioan**. Diskoak bi laguntzaile trebe izan ditu koruetan: **Iñaki Cerrajería "Mubajito"** ("Busco una luz", "Si te vas", "Amor y odio", "Dana nahi", "Volver a empezar" eta "Por fin me he decidido") eta **Argi Zameza** ("Algo especial", "Dana nahi" eta "Pedirte perdón"). Ahots hori entzun ahal izan dugu The Uski's taldearen diskoetan ere.

El Desván de... taldearen sustraiak eta eraginak oso garbi ikus daitezke hainbat abestitan. Rock zuzenean murgilduta dauden kantuek punkaren az-tarna gardenak gordetzen dituzte. Alain eta Juanma musikariak 5 Kontra taldean egondakoak dira eta talde horretan punk-rock estiloa jorratzen zuten. Eragin zuzena utzi die musika mota horrek eta "Volver a empezar" diskoan baita agerian geratu ere "Volver a empezar" eta "Si te vas" abestiek. Kantu hauek gitarra zorrotzeko rocka dute helburu, baina popa dute bide. Beste kantu batzuek popa dute xede nagusia. Hori esanda, ez dut uste bi bide desberdin daudenik diskoan, bai, ordea, bi estiloren uztarketa erraza eta ederra: rockaren indarra eta poparen gozotasuna. Kantuak zuzenean iristen dira ur lasaietan kaiaren barrena, non hormen kontra topo egin eta musika-uhin txikiak sortzen dituzten. Popa eta rocka modu trebean nahasturik. Hori da "Volver a empezar". Hori da El Desván de...

Zuen musika-ibilbidea, eta baita pertsonala ere, argituko duen argiaren bila zabiltzate.

Egia esateko, bai, eta batez ere alde pertsonalean, argi hori gabe beste gauza batzuek ez dutelako zentzurik. Musikari dagokionez, denbora luzea daramagu horren bila, baina gure aurreko taldearekin (5 kontra) ez genuen lortu El Desván de... taldearekin dagoen helburu batasun hori. Talde honekin dena doa norabide beretik eta hor ez dago inolako zalantzarik. Helburuei eta lorpenei dagokienez, goraino heldu nahi dugu. Hori da gure ametsa eta ez diogu inori kale egin nahi.

Oro har rock itxurako kantuak poparen inguruetara doaz.

Bai, estilo biak oso ditugu gustuko. Gure diskoan rockaren energia ukaezina da, indar asko du eta hori nabarmen egiten da lehenengo abestitik. Askok gustatzen zaigu popak eskaintzen dituen melodia on horiek eta El Desván de... bi estilo horien nahasketan oinarritzen da. Ez dugu ezer berririk asmatu, baina ez dugu inoren antzik, hori uste dugu behintzat. Aipamen berezia egin nahi diogu gure ekoizleari, Natxo Libertyri, bera izan baita diskoak duen potentziaren arduraduna. Kaña asko sartu zigun abestien norabideari eta soinuari dagokionez.

Hitzek bikote harremanetan dute helduleku garrantzitsuena.

Ez gatoz bat horrekin, denetarik dago. "Hablar por hablar" abestiak politika orokorra kritikatzeko du. "Algo especial" kantuak diskriminazioari eta aurreiritziei buruz hitz egiten du, "Si te vas" minbiziaz ari da, eta abar. Horregatik uste dugu gure diskoak ez duela gai bakar bat; hainbat letra, iritzi eta estilo musikal daude. Gure ustez, diskoa entretenigarria da. Jende mota askori zuzenduta dago eta, benetan, harro gaude egin dugun lanarekin.

ritxi aizpuru (2008ko irailaren 26an)

Alain Elordui: ahotsa eta koruak

Juanma García: gitarrak, koruak, konponketak eta bakarkakoak

Axier Garay (Kiriketa): baxua

Ahoztar Larrea: bateria

Natxo Liberty: ekoizpena, musika zuzendaritza, konponketak, grabaketa eta nahasketak

Sergio Jimeno: bateria zuzenekoetan

Yagoba Ormaetxea: bigarren gitarra zuzenekoetan

